

Herriko segalarien apustua

Argindegi atzeko zelaian ariko dira ▶ 5



Euskal Bizikleta Bidanian amaituko da gaur

URRAKI ▶ Eguerdian Urrakitik Bidegoian aldera pasatuko da txirrindulari lasterketa

AMAIERA ▶ Etaparen amaiera 17:10erako kalkulatzen dute antolatzaileek Bidanian ▶ 5

JOANES LIZARRAGA ▶ IKASLEA

«Sutegi eta aizkoragileak aztertu ditut nire lanean»

Etnografia lehiaketa irabazi du ▶ 7

IRATXE ETXEBESTE



Lurraren aldeko hitzarmena sinatu dute Samaniegon

TOLOSA ▶ Ikasleek, irakasleek, beste langileek eta gurasoek sinatu zuten atzo ▶ 2

VILLABONA ▶

Behar-Zana elkartearen festa, bihar

Partidak, bazkaria eta musika ▶ 4

IBARRA ▶

Uzturpe Ikastolaren Eguna bihar ▶ 6

TOLOSA ▶

Euskadiko Mendiko Bizikletako Opena, igandean San Blasen ▶ 3

ECOLA
bede ALTZARIAK

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurrira.
lo egiteko eta atseden hartzeko onena

Tel.: 943 65 29 01
Lizardi poeta, 2
TOLOSA

ASTE BERDEA ▶



Lurraren aldeko hitzarmena sinatu zuten atzo Samaniegoko ordezkariak ikasleen aurrean. I. ETXEBESTE

Lurra, etxe erraldoia

Samaniego ikastetxean Lurraren aldeko hitzarmena sinatu dute, bertan zoriontsu izateko zaindu egin behar delako



500 haurrek hartu zuten parte ekitaldian. I. ETXEBESTE



Haurrek ere sinatu zuten hitzarmena. I. ETXEBESTE



Jasotako zaborra, erakusketan: 35 kilo. I. ETXEBESTE

IRATXE ETXEBESTE

Lurra gure etxe erraldoia da. Bertan bizi behar dugu besteekin batera. Lurrean hazten gara eta ikasten dugu, bertan jolasten gara eta barre egiten dugu. Lurrean zoriontsu izan behar dugu. Horregatik, zainduko dugula hitzematzen dugu. Lurra zaintzea izango da hemendik aurrera gure lanetako bat. Gauden lekuan gaudela, gure hondaralea ipiniko dugu gure planeta egunetik egunera bizigarriagoa izan dadin». Samaniego ikastetxeko haurrek, gurasoek, irakasleek eta langileek egin-dako Lurraren aldeko hitzarmena da. Amaiak, Ainhoak, Henarrek, Olatzek, Enekok eta Ikerrek sinatu dute. Eta zuek?

Aste Berdearen baitan, hainbat ekimen egin dituzte Samaniegokoek aste osoan, eta atzo egin zuten horietako garrantzitsuena. Izan ere, Lurraren aldeko hitzarmena sinatzeko bildu ziren, ikastetxeko ikasle guztien aurrean, Samaniegoko zuzendari Itziar Etxeberria, Gorosti guraso elkarteko ordezkari Xabier Maiza, ikastetxeko langileen izenean Oihana Sanchez, irakasleen izenean Matxus Iturralde eta ikasleen ordezkari gisa Asier Sarasua. Ikastetxeko 500 ikasleek bertatik bertara ikusi ahal izan zuten Lurraren alde horiek guztiek hartutako konpromisoa.

Zaborra murriztea eta berreskuratzea, ura alferrik ez gastatzea, energia elektrikoa aurrezteko, berdeguneak errespetatzea eta landareekin eta lorategiekin kontu handia izatea, etxetik irteteen oinak, bizikleta edo garraio publikoa erabiltzea... Hartutako konpromisoe-tako batzuk baino ez dira. Izan ere, Samaniegokoek badakite herri edo eskola garbi bat «politagoa eta atseginagoa» dela. Badakite ura buka daitekeela ez bada harekin arreta izaten, energia elektrikoa aurreztean baliabide natural ugari aurretzen direla eta badakite autorik gabeko herria «atseginagoa eta osasuntsuagoa» dela. Hori guztia errespetatuko dutela zin

EGITARAUA ▶

Aste Berdeari gaur emango diote herritarrek agurra. Zuloaga Txiki ingurumen eskolak antolatuta, ekintza ezberdinak izango dira egun osoan:

GAUR

▶ **Zaborra.** Zaborraren inguruak izango dira gaurko ekitaldi guztiak. **09:00.** Zaborrari buruzko mezuak ematen dituzten irudiak jarriko dituzte Zuloaga Txikiko kideek Trianguloan. **09:30.** Eusko Jaurlaritzaren Aste Berdearen inguruko topaketak. Musika Eskolako areto nagusian bilduko dira EAEko 120 irakasle Eskola Agenda 21 egitasmoie buruz iritziak emateko. Alkateak aurkeztuko du ekimena. **19:00.** Zuhaitzen ibilaldia egingo dute San Bernardo aisialdi taldeko txikienekin.

BIHAR

▶ **Kalean.** Aste osoan zehar zabalduko mezuak kalean izango dira, erosketak egitera datozenek ere horie buruzko gogoeta egin dezaten.

egin dute haurrek, ikastetxearen kanpoaldean jarritako mural handian Lurraren aldeko hitzarmena sinatu zutelako atzo.

Hondakinaren, uraren, energiaren eta Lurraren egunak ospatu dituzte Samaniegokoek, eta ingurumenaren alde jarduteak duen garrantzia ikusi ahal izan dute. Nola? Joan den hilaren 24tik jai eman diote eskolako garbitzaileari, eta ikasleek egin dute, gelaz gela, jolastokiaren garbiketa. Lurrean zeuden pipa azalak, txikleak, txupaxus makilak, plastikokoak, paperak, globoak... hartu eta zabor motak aztertu ostean, pisatu egin dute jasotakoa. Bada astebetean 35 kilo zabor batu dute ikasleek lurretik, eta erakusketan jarri dute eskolaren sarreran. *Zaborrak jango al gaitu?* zuen kanpainak izena.

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



MENDIKO BIZIKLETA ▶

Euskadiko Openeko proba, Mendikutek antolatuta, etzi

San Blasen izango du irteera eta helmuga; 50 bat lagunek hartuko dute parte; Gipuzkoako Txapelketa ere jokatu da



Ekzerrean, Gorka Telleria tolosarra —lehen Mendikute; orain Alfus Tedes—, iazko proban. AITOR ELDUAIEN

LEIRE MONTES

Mendi bizikletako hitzordu garrantzitsua izango dute kirolariek eta zaleek etzi Tolosan. Mendikute elkarteak antolatuta, Euskadiko Openeko proba jokatu da, San Blas auzoan. Gipuzkoako Txapelketa ere izango da, era berean.

09:30ean ekingo diote probari lehendabiziko txirindulariek, eta 11:00etan abiatuko da beste multzoa. Izan ere, bi txandatan ariko dira kirolariak: lehendabizikoan, Junior K eta Junior mailakoek eta neskek hartuko dute parte; bigarrean, berriz, beteranoek 23 urte azpikoek eta Elite eta Master 30 mailakoek.

Ibilbide bera izango dute guztiek: «San Blas auzoko ermitan izango du abiapuntua ibilbideak. Zazpi bidetik Leaburuko San Sebastian ermitara iritsiko dira; berriz ere Zazpi bidetik joko dute, orain Txara-

ma aldera, eta handik San Blasera, helmugara, iritsiko dira», azaldu dute Mendikutekoek.

Ibilbide bera bai, baina egindako itzuliak «desberdinak, maila bakoitzaren arabera» izango dira. Hala, Junior K mailakoek bi buelta eman beharko dizkiote ibilbideari; Junior mailakoek eta neskek hiru itzuli, beteranoek bezala; eta 23 urte azpikoek, Elite mailakoek eta Master 30 mailakoek, azkenik, bost.

Ettxeok, faboritoen artean

150 bat txirindulari espero dituzte Mendikutekoek. Eta, horien artean, badituzte jada faboritok: «23 urte azpikoetan, adibidez, Gorka Telleria tolosarra (Alfus Tedes), Unai Korta eta Aitor Pradini (Mendikute), Jose Antonio Diez kantabriarra, Aiert Luzar bizkaitarra eta Iker Villanueva nafarra dira fa-

boritoak Euskadiko Openean». Elite mailan, bestalde, Patxi Cia nafarra, Santi Barranco arabarra eta Aitor Urruzola lasartearra jo dituzte nagusizat. Gipuzkoako Txapelketa ere, Telleriak, Kortak, Pradinik eta Urruzolak «ikuskizun polita» eskainiko dutela uste dute.

Maila bakoitzeko lehenengo hirurak sarituko ditu Mendikute elkarteak; guztira, beraz, hogeita bat garaikur banatuko ditu. «Gainera, Gipuzkoako Txapelketa ere izanik, maila bakoitzeko hiru txapel eta garaikur banatuko dira».

Mendikute elkarteok eskerrak eman nahi dizkiete haien laguntza eskaini dieten guztiei: «Batez ere baserrietako jendeari eman nahi dizkio-gu eskerrak zirkuitoa errespetatzeagatik eta antolakuntzan laguntzeagatik. Besteei ere, era batean edo bestean lagundu digutenei, mila esker».

HITZALDIA ▶

Josu Iztuetaren saioa Irazkiren urteurrenean

Irazki elkarte kulturantzak urteurrena dela eta antolatutako ekitaldien baitan, gaur Josu Iztueta bidaiariaren saioa izango da. *Miloi bat kilometro, beste kulturen bilaketa eta hurbilketa* hitzaldia eskainiko du, 20:00etan, Kultur Etxean, etorkinen esperientziak ere jasoz. Bihar, berriz, dastatze gastronomikoa, haur jaialdia eta kontzertua antolatu dute.

ZESTA-PUNTA ▶

Tolosa-Zumaia Herri Arteko Txapelketa gaur

Zesta-puntako Herri Arteko Txapelketaren beste jardunaldi bat jokatu da, gaur, Beotibar pilotalekuan. Tolosako Beotibar zesta-punta taldea eta Zumaia taldea lehiatuko dira, 19:00etan. Alain San Sebastian-Ifiaki Rezola kadeteek, Mikel Mujika-Ifiigo Orrantia jubenilek, eta Ramon Artetxe-Josu Trabazos seniorrek osatzen dute Tolosako taldea.

GIZARTEA ▶

Ibilgailu klasikoek elkartean eskertza

Ibilgailu Klasikoek X. Nazioarteko Azoka izan zen asteburuan herrian, eta antolatuak «eskerrak» eman nahi dizkiete tolosarrei «eskainitako laguntzagatik eta ekitaldi guztietan parte hartzeagatik». Motoen zirkuituko guneko bizilagunei eta dendarietara eskerrak eman dizkiete, era berean, «beren jarrera onagatik». Hurrengo urteko topaketa «aurtengoa bezain arrakastatsua» izatea nahi dute Ibilgailu klasikoek elkarteko kideek.



Asteburuko azoka. JAIONE ASTIBIA

ERAKUSKETA ▶

Txinpartako erakusketan izen-ematea

Urtero moduan, San Joan jaietarako margolan erakusketak antolatu du Txinparta elkarteak. Aurten gaia librea izango da, eta edonork har dezake parte. Gaur da izena emateko azken eguna, 19:30etik 20:30era, elkartean (Errementari kalea). Koadrak hilaren 21ean entregatu beharko dira bertan. Eta hilaren 23tik 27ra jarriko dituzte ikusgai lanak Txinparta elkartean.

MUSIKA ▶

Akuzazte eta Atom Rhumba, bihar

Biharko beste kontzertu bat antolatu dute Bonbereneakoek. Akuzazte eta Atom Rhumba taldeak igoko dira etxeko taula gainera. 22:30ean hasiko da emanaldia.

ERLIJIOA ▶

Pastoral uteari buruz batzar irekia, gaur

Gaur, 20:00etan, 2003-2004ko pastoral uteari buruz batzar irekia egingo dute apaiz etxeko parroki aretoan. Bihar, berriz, erretiroa eta otoitz ekitaldia izango da, 10:30etik 12:00etara, euskaraz. Eta etzi, Santa Maria parrokiaren eguna, eske berezia egingo dute parrokiaren beharretarako; 11:00etako mezan seigarren mailako haurrek bataioko agindu berritzea egingo dute.

HITZAK ASTELEHENEKO PILOTA PARTIDUETARAKO (ASPEK antolatuta) zozketatutako sarreren irabazleak :
Ines Aizpuru Agirre (Amezketeta) • Lorentxo Goikoetxeandia (Lizartza)
Agurtzane Iriarte Etxeberria (Berastegi)

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Behar-Zana elkarteak 58. urteurrenean festa antolatu du

Bihar hasiko dira ekintzak Behar-Zana elkartearen inguruan; partidak, bazkaria eta musika izango dira

GARAZI AZKUE

Villabonako Behar-Zana kirol elkarteak 58 urte bete ditu aurtun, eta ekintza ugari prestatu dituzte elkarteak kideek urteurrenerako.

Bihar eta etzi izango dira ekitaldi guztiak. Bihar goizean hasiko dira ikuskizunak, esku pilota partidekin. Egun guztian zehar, partidak, txaranga eta umore ona izango da nagusi Villabonako kaleetan barrena.

Gauean, afaldu ostean, Oria txarangarekin batera danborrada egingo dute. Elkartetik bertatik abiatuko dira eta herrian zehar ibiliko dira danborrariak.

Igandean, dianak emango dio hasiera egunari; errebote partidarekin jarraituko du egitarauak. Hau bukatu ondoren, bazkaria izango dute gonbidatuek Behar-Zana elkartearen.

58 urte pasa dira elkarteak sortu zenetik eta hurrengo urtean 59. urteurrena izango dute elkarteak pilotari eta kirolariak.



Askotariko partidak izango dira asteburuan. U. URREAGA

EGITARAUA ▶

BIHAR

10:00. Eskuzko pilota partidak (entrenamenduak).

18:00. Joko Garbi partida.

19:00. Kalejira Oria Txaranga alaituta.

19:00. Hildako elkartekideen aldeko meza.

20:00. Bazkideentzako afaria elkartearen.

23:00. Danborrada herrian zehar Oria txarangarekin batera.

IGANDEA

09:00. Santio bistulari elkartearen eskutik, diana herrian zehar.

11:30. Errebote partida.

14:30. Bazkaria elkartearen.

HERNIALDE ▶

'Hitzak patriketan' gaur herriko liburutegian

Aizpea Goenaga eta Iñaki Beraetxe aktoreak gerturatuko dira gaur Hernialdeko liburutegira. Goenaga eta Beraetxe dira *Hitzak patriketan* haurrentzat saioa aurrera daramaten herri ezberdinetan. Oraingoan Hernialderen txanda da, izenen, zenbakien eta koloreen magia azalduko dute antzezlan honetan. Hernialdeko liburutegian izango da, gaur, 18:00etan.

AIZTONDO ▶

Urkiolara joateko izena emateko azken eguna

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Urkiolara txangoa antolatu du datorren iganderako. Joan nahi duenak gaur du izena emateko azken aukera. San Antonio eguna dela-eta gerturatuko dira Urkiolara. Handik, Ondarroara joango dira bazkaltera eta arratsalde pasa. Izena emateko Aiztondoko bulegoetara jo beharko da edo 943 69 39 30 telefonora deitu.

ALKIZA ▶

'Zazpi gezur txiki' kontakuko dituzte gaur Alkizan

Ramon Agirre eta Joserra Senperenak daramate *7 gezur txiki* obraren pisua. Euskal Herriko herri askotan ikuskizuna eskaini ondoren, Alkizara iritsiko dira gaur. Musika eta bakarriketa nahastu dituen umorezko lan honekin dabilta azken aldian Agirre eta Senperena. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatearen eskutik, 22:00etan izango da ikuskizuna Alkizako kultur etxean.

VILLABONA ▶

'Sonata segundo batean eta piko', gaur Gurean

Aitor Mazoren zuzendaritzapean, Jose Cruz Gurrutxaga, Patxo Telleria eta Inazio Tolosa izango dira gaur Gurea zinemako taula gainean. Sonata segundo batean eta piko antzezlan izango da gaur Gurean. Musika eta antzerkia uztartuko dituzte hiru aktore-musikariek, Patxo Telleriak sortutako lan honetan. 22:30ean hasiko da ikuskizuna Villabonako Gurea zinema aretoan.



Uhinez uhin, hurrengo urtera bitarte!

ZIZURKIL ▶ Pedro Maria Otaño ikastetxeko irratsaioak egin ditu aurtengo ikasturtekoak. Atzo izan zuten 4. eta 5. mailako ikasleek azken irratsaioa. Uhinez uhin hurrengo urtera arte isilik egongo da. Baina datorren urtean indar gehiagorekin bueltatuko da FM 99.5-ean: Lehiaketak, deiak, eta beste hamaika kontu izango ditu datorrenean ere. G. AZKUE



Villabona - Kultura



— ANTZERKIA —
tARTEan TALDEA
'SONATA'
ANTZEZLANA

Ekainak 4 Ostirala • Gaueko 22:30etan
GUREA ARETOAN



Udala Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

BALIARRAIN ▶

KZguneko ikastaroen berri emateko bilera

Datorren astean jarriko da martxan KZgunea; hori dela eta eskainiko diren ikastaroen berri emateko bilera deitu du Udalak datorren astelehenerako, ekainaren 9an. Deialdia etxex-etxex ere banatu da. Informazio horrekin batera, Cebank-Cdea-k datorren ikasturtera begira proposatutako ikastaroen zereendaren berri ere emango da.

AMEZKETA ▶

Zazpi-Iturri zentralaren inaugurazioa

Zazpi-Iturri zentral elektrikoaren inaugurazio ekitaldia egingo da datorren asteazkenean, ekainaren 9an; zentralen bertan izango da 11:00etan. Martxan ere jarriko da zentrala bertaraten direnek ikusteko. Ordezkaritza joango dira ekitaldira baina «ekitaldia irekita egongo da interesa duen edonorentzat». Ondoren, luntxa izango da udaletxean.

GUTUN@K ▶



Xiba taldearena azalpena

Herri kirolak eta usadio zaharrak berreskuratzeko Ikastolen Elkarteak sortutako taldea da Xiba.

Anoetako jaietan datorren ingandean plazan herri kirol saio bat egiteko Udalaritza baime-

na eskatu genionean, Udalarren jai egitarauan sartzea jarri ziguten baldintza bezala. Berrez, Xiba taldeak jai alternatiboaren barruan antolatu behar zuen bere ekitaldia. Gero, baimenik ez zuenez ematen, independente gisa joatea erabaki zuen Xiba taldeak.

Azkenean, datorren igandean, hilak 6, egingo den herri ki-

rol saioa Anoetako bi jai egitarauetan azaldu da aipatutako arrazoiarengatik. Jendea animatu goizeko 11:00tan plazara agertu eta euskal Herri mailan egite ari den txapelketaren Gipuzkoako sailkapena ikustera.

Guztira, 200 pertsonak hartuko dute parte eta ikuskizun paregabea eskainiko dute.

IÑIGO IÑURRITA ▶ XIBA TALDEA

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

ANOETA ▶ KIROLA

Herriko hiru bikoterren arteko sega apustua

Trikitilariez eta bertsolariez alaituta egingo da bihar apustua Argindegi atzeko zelaian



Sega apustuan parte hartuko duen taldea. HITZA

O.ESKITXABEL

Herriko hiru bikoterren arteko sega apustua egingo da bihar, jai alternatiboaren egitarauaren baitan. Txomin Garmendia eta Igor Urkola, Aitzol Esnaola eta Egoitz Luisa eta Joakin Garmendia eta Iñigo Iturrioz izango dira apustuan parte hartuko duten bikoteak.

Bikote bakoitzak, zorroztailea, belar biltzaileak eta epaile bana izango dute.

10:15ean Argindegi atzeko zelaian izango da apustua; saioa, herriko trikitilariek eta Ibon Artola eta Anjel Mari Peñaigarikano bertsolarien saioak alaituko dute. Esatari lanetan, berriz, Jon Ugartemendia, Txarti, ariko da.

Harategia - Janaridenda
ZVGASTI
Aurrekoetak - Tel. 943 681 076
20496 BIDANIA (Gipuzkoa)

Hogeita hamar minuturen buruan belar gehien mozten duen bikoteak irabaziko du apustua. Sari gisa, txekorra, sei ardi eta aharia eramango dute irabazleek.

BIDEGOIAN ▶ KIROLA

Bidanian amaituko da Euskal Bizikletako gaurko etapa

Eguerdian Urrakitik Bidegoianera, ondoren, Errezil aldera hartzeko; 17:10ak aldera Bidanian izango da bukaera

OLAIA ESKITXABEL

Herenegun Eibarretik abiatu eta Karrantzan amaitu zen Euskal Bizikletako lehenengo etapa. Saunier Duval taldeko Martin Perdiguero txirrindulariak irabazi zuen.

Atzo, Karrantzatik Aguraineko bidea egin zuten txirrindulariek. Berritxo ere lehenengo etapako irudi bera errepikatu zen helmugan, lehenengo postuan Perdiguero eta bigarren Vicioso iritsi baitziren.

Guztira, hamazazpi talde ari dira parte hartzen lasterketan. Euskal taldeak Cafes Baque eta Euskaltel-Euskadi dira; italiarrak, frantziarrak, portugaldarrak eta espainiarrak dira gainontzekoak.

Aurreko urteetan bezala bost eguneko izango da aurtengo Euskal Bizikletako edizioa. Hirugarren etapa izango da gaurkoa eta eskualdetik pasako da bitan.

Bi egunetan

Agurainen amaitu zuten etapa atzo eta, handik abiatuta Bidegoianetik pasako dira txirrindulariak gaur bi aldiz. Bidegoian, Euskal Bizikletan lehenengo aldiz egingo den etapa da.

13:30ak aldera hasiko da gaurko etapa; Arabako hainbat herri zeharkatu ondoren, Gi-

puzkoan sartuko dira. Eta, Matxinbentatik Azpeitiara iritsiko dira. Urrakiko portua igo eta gero, Bidaniara iritsiko dira txirrindulariak. 16:20ak aldera izango da hori; hortik, Errezil aldera hartuko dute.

Baina berriro bueltan Bidaniara joango dira bertan amaituko baita etapa. Bukarea beldurgarria izango du etapa, Mandubia, Urraki eta Santa Agedako portuak igoko baitira.

Bihar bi saio izango dira. Goizeko saioa Bidegoianen hasi (Goiatzetik abiatuko dira 10:25ak inguruan), eta Abadiño artekoa izango da. Arratsaldean, berriz, banakako erloju kontrakoa izango da.

Olatua - Jaietxea
Eguzkitza
Guztira (Gipuzkoa)

Sei logia bikotz baimarekin
Olatua ikastetxea
Elke giroan natura gozatu
Donostiatik 25 minututara
Emarria telefonoa: 943 58 09 46

Kontzeju jaietxea

Berezitasuna parrilan:

- Euskal oiloa, latxa arkumea eta ahuntz azpigorria.
- Euskal txerriaren artisau hestekiak

Tel.: 943 68 10 03
e-mail: elolasat@euskalnet.net
20490 Bidegoian

Loatzo Matrikulazioa
Musika eskola
04-05 IKASTURTEA
Musikaz gozatzera anima zaitetz!

Epea: ekainak 1-7
Non matrikulatu: (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan	IBARRA: kultur etxean
ADUNA: udaletxean	LARRAUL: udaletxean
ALTZO: udaletxean	VILLABONA: kultur etxean
ALEGIA: udaletxean	IRURA: udaletxean
ZIZURKIL: Atxulondan	

ESKAINITZA ZABALA:
musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 692619

HITZA

eskualdeko plaza

- ▶ Interesgarria
- ▶ Zabala
- ▶ Parte-hartzailea
- ▶ Baterakoia

Egin zaitez HITZAren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeaz gain, harpidedun izateak dituen abantailez gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beharpenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46

▶ Harpidetza saila / Arreta telefonoa:
astegunetan (08:30etik 20:30era)
larunbatetan (9:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leitzaldeko

hitza

BERASTEGI ▶

Petti bakarlaria ariko da gaur gauean Urepelen

Petti bakarlaria nafarra ariko da gaur 22:30etik aurrera Urepel elkartearen Ekitaldia Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta du. Euskal Herriko gainerako bakarlariekin ez du antzekotasun handirik Pettik, kantatzeko eta gitarra zarrastatzeko modu ilun-trinkoa baitu. Bere existentzialismoa zurrara sortarazten duten kantuen sortzailea da Petti nafarra.

BELAUNTZA ▶

Pou anaien ikus-entzunezkoa gaur 19:00etan

Iker eta Pou anaien *Silbergeir*. *Eskaladan urte bikaina* izeneko ikus-entzunezkoa izango da gaur Kultur Etxean 19:00etatik aurrera. Munduko hormabiderik zaileneta-koa nola igo zuten ikusi ahal izango da bertan. Bestalde, datorren asteazkenean irudi digitalen tratamendua II. ikastaroa eskainiko dute 16:00etatik 20:00etara KZgunean.

IBARRA ▶

'Loren' izango da Realeko bigarren entrenatzailea

Lorenzo Juarros Loren ibar-tarra izango da aurrerantzean Realeko bigarren entrenatzailea. Atzo Jose Maria Amorrortu aurkeztu zuten txuri-urdinen lehen entrenatzaile modura Raynald Denoeuixen ordeiz. Loren makina bat urtetan aritu zen Lehen Mailan; Realean ez ezik, besteak beste, Athletic-en, eta Burgosen jokatu zuen ibar-tarrak.

IBARRA ▶ HEZKUNTZA

Ekitaldi ugari bihar, Uzturpe Ikastolaren Eguna ospatzeko

Antolatzaileek prestatutako ekitaldietan ibartar guztiei parte hartu eta ondo pasatzeko gonbitea luzatu diete

DANI GIBELALDE

Urtero bezala, makina bat ekitaldi izango da bihar Uzturpe Ikastolaren Eguna ospatzeko. Antolatzaileek ibartar guztiei ekitaldietan parte hartu eta «ondo pasatzeko» gonbitea egin diete.

Goizean Zumardi Handian triatloia izango da. Ondoren, herriko plazan, jolasak izango dira. Txikienek (2-5 urtekoek) jolas desberdinetan aritzeko aukera izango dute; helduagoek (6-11 urtekoek) altxolarren bila jolasean ariko dira. Aipatutako azken jolas hori DBHko ikasleek antolatuta dute.

Eguerdian tokan ariko dira San Bartolome plazan. Ikasleek ez ezik, guraso eta irakasleek parte hartu ahal izango dute tokan. Ordu berean, baina frontoian, pilota partidua jokatuko dira.

Belabieta kiroldegian bazkalduko dute denek, eta giroa alaitzeko trikitalarien laguntza izango dute.

Bazkalostean, Uzturpeko ikasleek urtean zehar eskolaz kanpoko jardueretan egiten dutenaren erakustaldi moduko bat egingo dute. Besteak beste, Musika Eskolako saioa, Alurr dantza taldeko dantzariena, aerobik taldekoena, eta gimnasia erritmikokoena izango dira. Hockey partida bat ere jokatuko dute.



Iazko Ikastolako Egunean gazteboak jolasten. IRATXE ETXEBESTE

IKASTOLAREN EGUNA ▶

BIHAR

10:30. Zumardi handian, triatloia: krosa, zaku karrera eta patinaia.

12:00. Herriko plazan 2-5 urteko haurrentzat jolasak izango dira. 6-11 urteko haurrentzat, berriz, altxoraren bila jolasa izango da DBHko ikasleek antolatuta.

13:00. Toka guraso, ikasle eta

irakasleek parte hartzeko. Frontoian, pilota partidua jokatuko dira.

14:00. Bazkaria Belabieta kiroldegian.

Bazkalostean. Ikasleek eskolaz kanpoko ekintzetan landu duten jardueren erakustaldia. Musika eskolako saioa, Alurr-eko dantzariak, aerobik-a, gimnasia erritmikoa eta hockey partidua.

ARESO ▶ GIZARTEA

Pake Tokiren 25. urteurren festa etzi

Egun osoko festa antolatu dute eta herri guztia gonbidatuta dago

JAIONE ASTIBIA

Etzi igandea, ekainak 6, herri festa eguna izanen da, Pake Toki elkarteak sortu zela hogeita bost urte betetzen baititu.

Elkarte hau herrian oso txertatuta dago ohiko elkarte modura funtzionatzeaz gain, herriko hainbat eta hainbat ekitaldi eta ekimenen sustatzaile eta antolatzaile ere bai baita, kultura ingurukoak nahiz bestelako gaietakoak izan.

Elkarteak 120 bat bazkide ditu guztira, adin tarte guztietako jendea biltzen duelarik. Eta horietatik asko, igandeko ospakizunetan murgilduko da eta bazkarian ere parte hartuko du «110 lagunek eman dute izena bazkarirako eta, noski, bazkide ez direnak ere tarteen badira», argitu du Josetxo Goikoetxea elkarteko lehendakariak. Otor-

dua ere beraiek prestatuko omen dute, gainerako egitarau osoa bezala.

EGITARAUA ▶

Hau da ordutegia.

EKAINAK 6

11:00tan. Meza nagusia egingo da hildako bazkideen oroimenez.

12:00tan. Saldia beroa eta haragi egosia herritarrentzat, plazan.

12:30ean. Pilota partiduak plazan: Vera-Nieto/Alustiza-Galarraga Ontsal-Barandarain/Olazabal-Iriarte

14:00tan. Bazkaria Pake Toki elkartean.

Ondoren. Iruritako eskal musikak.

JOANES LIZARRAGA ▶ IKASLEA

«Sutegi eta aizkoragileak aztertu ditut»

‘Jose Maria Satrustegi’ Etnografia
Lehiaketan parte hartu eta
lehendabiziko saria irabazi du

J. ASTIBIA

Joanes Lizarragak hamabost urte ditu eta Leitzako Amazabal Institutuan, DBHko 4. maila egiten ari da eta hantxe hitz egi dugu berarekin.

Saria irabazi omen duzu, ez?

Bai, etnografia lehiaketako lehendabiziko saria.

Zer lan mota aurkeztu zenuen?

Sutegi eta aizkorak nola egiten ziren eta, esplikatuz.

Nola lortu zenuen materiala?

Bada, aurrena Luis Erbitirekin hitz egin nuen eta elkarriketa grabatu; Gero hori dena transkribatu; Eta azkenik, gai horren inguruko lan etnografikoa egin. Eta hori dena lehiaketara aurkeztu.



Joanes Lizarraga. J. ASTIBIA

Harritu zaitu sariak?

Bueno, ez da lehendabizikoa izan. Lau urtetan aurkeztu dit lana lehiaketa honetara eta denetan irabazi dut sari bat. Bueno, DBHko 1. go mailan, 3. gelditu nintzen, baina bestetan lehendabiziko.

Zein da saria?

Ikastetxeak 200 euro jasoko ditu eta niretzat ez dakit zenbatekoa den, bononren bat edo izanen da gastatzeko.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttpa aId.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Etxebeste, Gerniako

Arbola, 3, (Tolosa).

943 65 10 40

Larraia M.I., Elbarren, 95,

(Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info



Olaberriko biribilunea bukatzeaz dago

HERRILANAK ▶ Olaberriko biribiluneko lanak bukatzeaz daude. Jadanik zoladura botatzen ari dira eta ondoren seinalizazioa egitea geldituko da. Lanak Gorritz S.L. enpresak egin baditu ere, ikurrak jartzea Nafarroako

Gobernuak berak egingen ditu. Bestalde Pastain baserri aldera doan bidea, egin duten horma berriarekin baliozabetua geratu zen, itxita. Hori kopontzeko, alegia igarotzea ahalbidetzeko eskailerak egingen omen dituzte. JAIONE ASTIBIA

LEITZA ▶

Aralar Musika Eskolaren kontzertua gaur zineman

Urtero egin ohi duten moduan, Udal Musika Eskolako ikasleek eskainiko dute

J. ASTIBIA

Gaur ostirala, arratsaldeko 19:30ean hasiko da emanaldia Leitzako zinema aretoan. Eta jakitera eman denez, sarrrera 2,50 euro ordaindu beharko da, besteak beste emanaldian berean erabiliko den megafonia ekipoa ordaintzeko laguntza gisa.

Kontzertuan ikasturtean zehar lanean aritu diren ikasleek hartuko dute parte eta ikasitakoa erakutsiko dute, mota guztietako tresnak joz.

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Taberna. Oresako taberna alokatzen da. 943 68 20 29.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko ekainaren 4a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Alburuz, Alegia, Akitza, Alzu, Ametzola, Ansoeta, Balaizana, Berastegi, Etxadain, Hernialde, Iruia, Iruia, Larrat, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zuzuki

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurilaria. Kultura Saila

943 30 43 46

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzera

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Irudi Txikiak argazki rallya egingo dute 18:00-etatik 20:00etara Bartolome plazan.

Tolosa. Goiko Irratian (107.0 FM) *Kornerra* saioa 19:00etan.

HITZALDIAK

Tolosa. *Miloi bat kilometro, beste kulturekiko bilaketa eta gerturaketa.* Josu Iztueta etorkinekin hizketan. Kultur Etxean 20:00etan.

IKUSKIZUNAK

Alkiza. *7 gezur txiki,* 22:00etan Kultur Etxean.

Belauntza. Iker eta Eneko Pouren *Silbergeier.*

Eskaladan urte bikaina Kultur Etxean 19:00etan.

Hernialde. *Hitzak patriketan* antzerkia. 18:00etan liburategian.

Ibarra. Jatadida taldearen antzerki-bakarrizketak 20:00etan Kultur Etxean.

Villabona. *Sonata segundo batean eta piku* antzerkia. 22:30ean Gurean.

KIROLA

HITZA txapelketa. (Benjaminak, Albiztur, 19:00etan)

Zelaia-Labaka/Ander-Altuna.

Salaberria-Maxineia/Irazusta-Benadre.

Garin-Ansa/Artola-Otamendi.

Galarraga-Aburuza/Eskudero-Jauregi.

MUSIKA

Berastegi. Pettiren kontzertua 22:30ean Urepel elkartean.

ZINEMA

Tolosa. *El castigador* filma. Gaur 22:30ean Leidorren.

Euskal arraunlariak Venezian

TOLOSA ▶ Euskal Herriko arraunlariak Veneziaiko Vogalongak parte hartu zuten pasa den asteburuan, tartean eskualdeko lau izan ziren



Veneziaiko Vogalonga arraun proban milaka arraunlarik parte hartu zuten joan zen igandean; argazkian, arraunlari euskaldunak. HITZA

ERREDAKZIOA

Vogalonga 2004, Venezia. Arraun proba entzute-tsuari parte hartu zuten pasa den maiatzaren 30ean Euskal Herriko arraunlari talde batek. Arraunlariei artean ziren Josu Iztueta, Gaspar Urkola eta Aitor Elduaiei tolosarrak eta Patxi Lasa bidaniarra.

Euskaldunek, trainerila batekin osatu zituzten proban egin beharreko 30 kilometroak, beste 1.500 untziren artean. Veneziaiko San Marco portutik abiatu ziren guztiak, eta Veneziaiko Lakuko irletan barrera egin zuten bidea: Elena irla, Vignole, San Erasmo... igaro ondoren, berriz ere Veneziaiko hirigunera sartu ziren untziak.

Lehiaketa kutsurik gabeko proba da Vogalonga. Probaren helburuen artean dago motor-dun untzien zirkulazioa murriztea Venezia, horiek eragiten dituzten olatuek bertako eraikinei eta ingurumenari kalte egiten baitute.

Bestalde, Euskal Herriko itsas hondarea berreskuratu eta duen garrantzia azpimarratu nahi duite parte-hartzaileek ekintza honekin.

Eta azkenik, Tolosan garai baten zegoen arraun zaletasuna berrindartu nahi duite Venezia izan ziren arraunlariek. Orain ia 25 urte arte Oriia ibaian eginen ziren batel estropadak berriz ere egin nahi baitituzte. Aurtengo sanjoanetan batel estropadak egingo dituzte erakustaldi gisan.

DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre Ileaipaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri Berezia
- Factory
- Elite Kiroiak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kiroiak
- Muebles Garces
- Poxpolin Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815 Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Ofiatria Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojutegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarite Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihoak
- Kanikak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN. (Martxoetik ekainera) EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

*Promozio hau ez zaie beste beharpenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.



URTE ASKOAN
 Mikel Zelaia 'Txirrita'. Zorionak bere lagunaren partetik.

press to kalitatezko garbiketa azkarrak

EDREDOIA GARBITZEAGATIK EDO ARROPA KONPONTZEAGATIK:
 JANTZI BATEN GARBIKETA OPARI

ALFONBREN GARBIKETA: 7,50€/m²ko

San Frantzisko, 19 • TOLOSA • 943 65 38 77